

Elkarbizitzarako Bakerako Etxerako BIDEAN



SARE

enero 2022 urtarrila

AURKIBIDEA

1. BEHARREZKO SARRERA: ESPETXE-POLITIKAREN JATORRIA

- 1.1. Espetxe-politikaren jatorria
- 1.2. Espetxe-politika 2018tik aurrera

2. ESPETXEETAKO EGOERARI BURUZKO EGUNGO OINARRIZKO DATUAK

3. LEGEDIAREN IKUSPEGITIK

4. ESKUBIDEEN IKUSPEGITIK

- 4.1. Gaixoen bizitzarako eskubidea
- 4.2. Estatu espainoletik kanpo betetako zigorrak zenbatuak izateko eskubidea
- 4.3. Zigorra ohiko bizilekutik gertu betetzeko eskubidea
- 4.4. Gradu-progresioak eta espetxeetako agintariek egiten duten erabilera

5. ESPETXE-POLITIKA, BIKTIMAK ETA MEMORIA

6. ESPETXE-POLITIKA: AZKEN GOGOETA

7. ONDORIOAK / AMAIERAKO HITZAK

1. BEHARREZKO SARRERA: ESPETXE-POLITIKAREN JATORRIA

1. Bere jaiotzaren arrazoari erantzunez, eta beste urte batzuetan bezala, SARE Herritarrak, urtarrilean deitzen duen urteroko manifestazio jendetsuaren orde, urtarrilaren 8an, pandemia dela eta, udalerrri ezberdinetan burututako manifestazioen ondoren, euskal presoek egoerari buruzko hausnarketa plazaratu nahi du; euskal presoekin gertatzen ari denaz, aplikatzen ari zaien politikaz eta politika horrek espetxean dauden pertsonen eta haien senideen eskubideetan dituen ondorioetaz.

1.1. Espetxe politikaren jatorria

2. Hasiera batean, euskal presoak ez ziren espetxeratzen aurrez ezarritako eskema baten arabera, beranduago, sakabanaketa- eta urruntze-politikarekin gertatuko zen bezala. Politika honi 1987an eman zitzaion hasiera, eta 1989ko apirilaz geroztik, euskal presoak sistematikoki estatu espainiarrean zehar barreiatuta espetxeratuko dira.

3. 1987a baino lehen, euskal presoak Alcala-Mecon, Herrera de la Manchán eta Carabanchelen espetxeratzen zituzten, eta, baita gertuago ere, Langraitzen kasu, Euskal Herrian. 1987tik aurrera, oster, Euskal Herritik urrunen zeuden espetxeek preso horiek hartzen hasi ziren. Andaluzia, Levante, Galizia baita Kanariar Uharteak edo Ceuta ere izan ziren preso horien senideek bisitatu ahal izateko bidaiatu behar izan zuten tokiak. Hamarkadatan luzatu den ankerkeria. Bidean: sufrimendu handia, istripu ugari, 16 hildako zirkulazio-istripu horietan, baina, era berean, duintasun handia senideen kolektiboaren baitan, distantziak distantzia, astebete ere ez baitzieten utzi beren senideak bisitatzeari. Bere egin zuten, urte batzuk geroago **Desmond Tutu** artzapezpiku hegoafrikarrak esan zuena, Hegoafrikako presoei buruz: *"Garrantzitsua da askatasunik gabe dauden pertsonen, jakin dezatela kalean senideak, lagunak, elkarteak daudela, beren eskubideen alde borrokatzen dutenak."*

4. Espainiako Gobernuak urruntze-politika hori ETari presoek kontrola eragozteko ahalegin gisa defendatu zuen. Egia esan, politika horrek giza eskubide asko sakrifikatu zituen bidean, hasteko pertsona horien subjektu juridiko izaera, eskubideen jabeak direla, horien artean oinarrizko eskubideenak. Ez zen inoiz kontuan hartu zigorraren xede diren egitateen larritasuna, ezta pertsona horien eta haien senideen egoera ere.

Senideak prozesu horren albo biktima bilakatu ziren, batez ere adin nagusiko pertsonak eta adingabeak. Haien bizipenean, lekualdatzeak urteetan zehar errepikatzen ziren zigorrak ziren.

Espainiako Gobernuaren helburua sakabanatzea izan zitekeen, eta ez urruntzea. Lehenengoak ez du bigarrena behar. Espetxean dauden pertsonen arteko komunikazioa eragozteko edo zailtzeko ez da beharrezkoa Kanarietara, Ceutara, Andaluziara edo Galiziara lekualdatzea. Urruntzeekin (berriz) zigorra areagotzen da.

Bestalde, auzitegiek adierazi zuten bezala, sakabanaketak ez zuen balio izan lortu nahi zen helbururako. Horrek esan nahi du sakabanatzean eta urruntzean datzan eskubide-mugak ez zuela proportzionaltasun- printzipioak aurreikusten dituen hiru baldintzetatik bat bera ere betetzen: beharrezkoa izatea, egokia izatea eta proportzionala izatea. Urruntzea ez zen neurri egokia proposatutako helburua lortzeko.

5. 2018ko ekainean, Espainiako Gobernuko egungo presidentek iragarri zuen euskal presoek kolektiboari aplikatzen zaion espetxe-politikaren berrikusketari sakon bati ekingo ziola, *“terrorismoaren aurkako espetxe-politikaren ordezkari politikak arrunta”* ezartzeko asmoz. Ondoren, data horretatik aurrera garatutako politika deskribatuko da.

1.2. Espetxe politika 2018tik

6. Euskal Presoen Kolektiboak (EPKK) eztabaida bat burutu zuen une berri horretan espetxetik ateratzeko eman zitezkeen prozesuen inguruan. ETak 2011n eten zuen bere jardura, eta 2018an formalki desagertu egin zen erakunde gisa. Euskal presoek bi ideia nagusi ondorioztatzen dute une honetan, *“salbuespenezko erregimena desagerraraztea”*, eta *“legezko normaltasunarekin bat datozen askatze-prozesuak abiaraztea”*. Hau da, erabakia presoek kolektiboaren borondate edo prestasunean oinarritzen da, gizartera itzultzeko espetxeetako legezketasunarekin bat datozen bideak jorratzeko borondatean, hain zuzen ere, eta SAREn **“Ibilian-ibilian, etxerako bidean”** esaten diogu horri.

7. 2017ko uztailetik 2018ko uztaileira bitarteko aldia ia antzua izan zen. Alde batetik, ibilbide berriaren hasierak euskal presoek prestakuntza teknikoa eta gauzak egiteko modu nabarmen ezberdin batera egokitzea eskatzen zielako. Baina, batez ere, beste aldean zentzu horretan aurrera egiteko gutxieneko borondaterik ez dagoen garaia

da hau. Izan ere, Estatuko Gobernuaren esku zegoen, eta PPK ez zuen mugimendu bakar bat ere egin etapa berri hori gara zedin.

8. Alor judizialean, preso horien bizi-baldintzak eta espetxetik ateratzeko prozesuak gainbegiratzeko dituzten organo judizialek (Espetxe Zaintzarako Epaitegi Zentralak eta Auzitegi Nazionalako Zigor-arloko Salako Lehen Atalak) ondorio praktiko eta garrantzitsurik gabeko pausu ñimiñoak besterik ez zituzten eman.

9. 2019an berriro ere PSOE gobernura iritsi zenean, alderdi horretako kideek edo Gobernu berriko kideek espetxe-politika aldatzeari buruz hitz egiten hasi ziren berriz ere, 2018ko ekainean gertatu bezala. Orduan susmatu genuen gobernu berri hartan ideia orokor bat gaintzen ari zela, alegia, espetxe-politikak terrorismoaren aurkako politikaren parte izateari utzi behar ziola (ETA 2018ko maiatzean desegin zen) eta, ondorioz, espetxe-politika, esangura hertsian, izan behar zuela.

10. Aurreko hilabeteetan ere mugimenduak izan ziren ildo horretan, eta, ondorioz, SGIP-k (Espetxeko Idazkaritza Nagusiak) preso horien kopuru txiki bat birsailkatu eta lehen gradutik bigarrenera igaro zituen. Aldi berean, etxetik hurbilago zeuden espetxeetara eramango zituztela iragarri zen, baina lekualdaketa gehienak ez ziren gauzatu.

11. Aldi berean, Espetxe Zaintzarako Epaitegi Zentralean (JCVP) presoek kolektibo hori birsailkatzeko atea irekitzen zuten ebazpen gutxi batzuk ematen ari ziren, eta, horrela, zenbait preso lehen gradua utzi eta bigarren graduan sartzen ziren, pixkanaka bada ere (lehen graduari eutsiz, baina EEren 100.2 artikulua aipatutako malgutasun-printzipioa aplikatuz). Urrats mugatuak: bai eraginpean hartzen zituen pertsonen kopuruari dagokionez, bai aldaketaren sakontasunari dagokionez.

12. 2019. urtearen amaieratik, ordea, egiaztatu genuen Espetxe Zaintzako Epaitegi Zentralaren bitartez, Gobernuaren ekintzatik eratorritako aldaketek eritmo handiagoa hartzen zutela. Komeni da azpimarratzea presoek egoera hobetzen dieten aldaketak –kokapen geografikoa eta bizitza-erregimena– Gobernuak hartutako erabakiei zor zaizkiola gehienbat, azken bi urte hauetan Espetxe Zaintzako Epaitegi Zentralak ez diolako eutsi ebazpen judizialean hasitako bideari. Aitzitik, argi eta garbi esan daiteke eremu judizialak inboluzio bat izan duela.

13. Bestalde, COVID19ak eragindako pandemiak nabarmen eragiten dio prozesu honi, eta, horrela, 2019ko abendutik aurrera emandako lehen urratsak eten edo moteldu egin dira pandemiaren ondorioz.

Gaur egun ere dirauen pandemia-aldi honi dagokionean, espetxeetako kudeaketa-eredua nolakoa (izan) den aztertzea behar da erabat lehenesten dela birusa espetxeetan ez sartzeko, presoek komunikazioetarako eta

tratamendurako eskubidea larriki urratua izan arren. Azterketa hau espetxe-politikak euskal presoekin izan dituen berezitasunak alde batera utzita egin behar da.

14. 2019ko abendutik 2021eko uztaiera arteko espetxe-politikaren ezaugarria urruntze-politikan eman den erabateko aldaketa izan da. Batez ere 2020ko bigarren seihilekoan eta 2021eko lehen seihilekoan eman ziren destino-aldaketen ondorioz, gaur egun preso hauetako bat bera ere ez dago Espainiako Estatuaren hegoaldean. Eta egun (2022-01-09) 92 dira Hego Euskal Herrian kokatutako espetxeetan daudenak.

15. Adierazi beharra dago, hurbiltze horiek jendaurrean iragarri zirenetik, bi urte igaro behar izan direla, eta, pixkanaka, euskal preso batzuk beren bizilekutik hurbil dauden espetxeetara hurbiltzen hasi direla. Andaluzia, Levante eta Galiziako espetxeetan ez da euskal presorik gratzen. Bestalde, Espainiako Gobernuako presidentek iragarri eta hiru urte eta erdi geroago, preso horien %50 inguru Espainiako Estatuko espetxeetan daude oraindik, Euskal Herritik urrun (2022ko urtarrila).

2. ESPETXEETAKO EGOERARI BURUZKO EGUNGO OINARRIZKO DATUAK

Espetxeratutako pertsonen egoerari buruzko datuak bi aldagaien arabera sailka daitezke: kokapena eta senideek egin beharreko distantziak, bai, Espainiako estatuko espetxeetan, eta baita Frantziako estatuko espetxeetan ere.

2.1. Espetxearen kokapenaren arabera.

a) Euskal Herriko espetxeetan	92 preso
b) Etxean	10 preso
c) Espainiar Estatua	83 preso
d) Frantziar Estatua	21 preso

2.2. Espainiako Estatuko espetxeetan dauden pertsonen senideek egin beharreko distantziak.

- a) Senideen %43ak Euskal Herriko espetxeetara bidaiatu behar dute
- b) Senideen %53ak, batzaz beste, 150/400 kilometro egin behar dituzte
- c) Senideen %4ak, batzaz beste, 401/600 kilometro egin behar dituzte

2.3. Senideek egin beharreko distantziak Frantziako Estatuko espetxeetan

dauden presoek kasuan.

- a) Gertueneko espetxeetan presoek % 80
- b) 600 kilometrotara presoek %20

Datu hauek eskuan, ondoriozta daiteke euskal presoek kolektiboari aplikatu izan zaion salbuespen-araubideak bere horretan jarraitzen duela. Hori gradu-progresioek kasuan gertatzen da bereziki, jarraian deskribatzen den bezala.

2.4. Gradu-progresioa

Sare Herritarrak bildutako datuen arabera, Espainiar estatuko presoek %90ek espetxe-zigorra gutxienez bigarren graduan eta erregimen arruntan daudelarik amaitzen dute eta, preso askori kondenaren amaiera hirugarren graduan egon ondoren, baldintzapeko askatasun-erregimenean daudelarik iristen zaie. Euskal presoek kasuan, berriz, gehienek zigorra oraindik lehen graduan daudelarik amaitzen dute.

Euskal presoek ezartzen zaie espetxe-araudia salbuespenean oinarrituta dagoela agerikoa da, hirugarren gradurako progresioak ez baitira ia ematen.

Orain dela urtebete arte, lehen adierazi dugun bezala, preso horietako ia gehienak lehen espetxe-graduan zeuden, eta, beraz, askatasuna espetxe-zigor osoa lehen graduan eman ondoren berreskuratu dute, eta hori anomalia larria da. Gaur egungo egoera (2022ko urtarrilean) honako hau da:

- a) 11 preso hirugarren graduan
- b) 155 preso bigarren graduan
- c) 7 preso kalifikaziorik gabe

Hau da, preso horietako gehienak bigarren espetxe-gradutik mugitu ezinik daude, eta horrek baldintzapeko askatasunerantz aurrera egitea eragozten die, kondenaren hiru laurdenak betetzen dituztenean. Salbuespenezko araudia aplikatzen zaiela erakusten duen beste adibide bat

2.5. Gaixo larri dauden eta/edo bestelako gabezia fisikoak dituzten presoak

Euskal presoek batez besteko adina altua da (47 urte). Askok urte asko daramatzate zigorra betetzen.

- a) Preso hauen adina

70 urtetik gorako 10 preso
65 urtetik gorako 8 preso
60 urtetik gorako 20 preso

b) Preso daramaten urte kopurua
22 presok, 20 urte
31 presok, 20 urte baino gehiago
11 presok, 25 urte baino gehiago
4 presok, 30 urte baino gehiago

Datu hauek eskuan, preso askoren egoera fisiko eta psikikoa oso makala dela ondoriozta daiteke. Une honetan oso gaixo dauden 19 preso daude. Beren osasun egoera eta kondena betetzen daramaten denbora dela eta, osasun tratamendua espetxetik kanpo jaso beharko lukete eta senideengandik hurbil egon beharko lukete, baina aipatutako salbuespenezko araudia aplikatzen zaie, eta ez espetxetik ateratzeko aukera emango lieken araudi arrunta.

Espetxeratutako pertsonen egoerari buruzko datuak bi aldagaien arabera sailka daitezke: kokapena eta senideek egin beharreko distantziak, bai, Espainiako estatuko espetxeetan, eta baita Frantziako estatuko espetxeetan ere.

3. LEGEDIAREN IKUSPEGITIK

16. Espetxe-arloko legezkotasunaren printzipioak legezkotasunaren printzipio orokorraren ezaugarri berberak ditu. Hau da, legezkotasunaren printzipioaren arabera, botere publikoek (kasu honetan espetxe-administrazioak eta hura aplikatu behar duten organo administratibo eta judizialek) legeak gaituta jardun behar dute beti. Lege batek ezarri behar ditu espetxe-politika ardura duen organo bakoitzak dituen eskumenak, eskumen bakoitza eta espetxe-politika horren helburua ondo zehaztuz. Gaikuntza-aginduarekin batera, legezkotasunaren printzipioak pertsonen oinarritzko eskubideak bermatzeko betebeharra dauka. Espetxean dauden presoek gainerako pertsonen eskubide berberak dituzte, nolabait eskubide hauek baldintzaturik egon arren, logikoa denez, Estatu espainoleko espetxe bateko preso izaera dutelako.

17. Beharrezko gaikuntza horretatik hasita, Espetxe Lege Orokorrak (ELO) adierazten du zein den espetxeen esku-hartzearen helburua, eta lehen artikuluan zehazten du haren helburu nagusia dela epaituen berreziketa eta gizarteratzea. Espetxeen jarduera bermeekin egin behar da, legeak, erregelamenduek eta epai judizialek ezarritako mugen barruan (ELO 2. artikulua). Era berean, ezartzen da espetxe-jarduerak,

nolanahi ere, presoen giza duintasuna eta haien eskubide eta interes juridikoak errespetatu beharko dituela. Printzipio horretatik ondorioztatzen da presoek “eskubide zibilak, politikoak, sozialak, ekonomikoak eta kulturalak egikaritu ahal izango dituztela, sufragio-eskubidea barne, salbu eta eskubide horiek bateraezinak badira atxilotetaren xedearekin edo zigorra betetzearekin” (ELO 3.1. artikulua). Honela, Espetxe-administrazioak “zaindu egin beharko ditu presoen bizitza, integritatea eta osasuna” (ELO 3.4. artikulua). Presoek ez dute hitzez edo egintzez tratatu txarrik jasoko (ELO 6 artikulua).

18. Printzipio horiek beste arau batzuetan zehazten dira, hala nola Espetxe Erregelamenduak (EE) ezartzen duenean espetxe-jarduera “Konstituzioan eta legean ezarritako bermekin eta mugen barruan” garatuko dela, eta adierazten du, halaber, “presoen eskubideak legeek xedatzen dutenean bakarrik murriztu ahal izango direla” (EEren 3.1 eta 2 artikulua). Ondoren adierazten du espetxe-zigorraren irizpide nagusia presoaren eskubideen subjektu gisa hartzea izan behar dela, gizartetik baztertua egongo ez dena, eta, “ondorioz, espetxeko bizitzak bizitza askatasunean hartu behar du erreferentzia gisa, espetxeratua izatearen ondorio kaltegarriak ahalik eta gehien murriztuz, gizarte-loturak, erakunde publiko eta pribatuen lankidetzak eta parte-hartzea eta prestazio publikoak eskuratzea ahalbidetuz” (3.3 EE).

19. Espetxe-jarduera arautzen duten printzipioei presoei aitortzen zaizkien eskubideak gehitzen zaizkie. Arauak berariaz adierazten du presoek eskubide hauek izango dituztela:

“Espetxe-administrazioak bere bizitzak, integritatea eta osasuna zaintzeko eskubidea, inola ere torturarik edo hitzezko edo ekintzazko tratatu txarrik pairatu gabe, eta beharrezkoak ez diren zorrotasunik jasan gabe arauak aplikatzerakoan”; “Legediak aurreikusitako kanpo harremanetarako eskubidea”; “Eskubide zibilak, politikoak, sozialak, ekonomikoak eta kulturalak baliatzeko eskubidea, atxilotetaren xedearekin edo zigorra betetzearekin bateraezinak direnean izan ezik (hurrenez hurren, 4.2.a, i, c) EE).

20. Honaino, beraz, badirudi argi dagoela Espetxe Administrazioaren esku-hartzea aipatutako printzipioek arautzen dutela eta espetxean dauden presoek eskubide guztiak dituztela, bai eta eskubide zibilak ere, salbu eta eskubide horiek baliatzea bateraezina bada atxilotetaren xedearekin edo zigorra betetzearekin (4.2. c) EE).

Horrenbestez, presoaren eskubideen aitortzen orokor bat dago, eta eskubide horien barruan egongo litzateke familiarren intimitaterako eskubidea. Geroago ikusiko den bezala, eskubide horrek garrantzi handia hartzen du sakabanatze-politikak presoek espetxean dituzten oinarritzeko eskubideekin bat datozen eta legezko oinarri nahikoa duten baloratzeko orduan, hau da, botere publikoek indarrean dagoen legeriaren arabera politika hori egiteko gaituta dauden ala ez.

21. Espetxe-zuzenbidea positiboa izanik, interesgarria da Giza Eskubideen Europako Hitzarmena begiratzea. Hitzarmen horretan intimitaterako eskubidea jasotzen da, 8. artikuluan. Giza Eskubideen Europako Auzitegiak *Khodorkovsky eta Levedev Errusiaren aurkako auzian* hitzarmen hori interpretatu du eta hartutako erabakiari arretaz erreparatu behar zaio. Jarraian, Giza Eskubideen Europako Auzitegiaren epaiak barne-ordenean duen balioa aztertuko da, Espainiako Estatua prozesuko parte ez den kasu batean, baina oraingoz nahikoa da epaiaren eduki hori aipatzea.

22. Giza Eskubideen Europako Auzitegiak espetxe-sistemak kudeatzeko zailtasuna aitortzen du, eta barne-agintariei esparru horretan garatzen duten politikan balorazioak egiteko tarte zabala aitortzen die. Balorazio tarte hori, ordea, ez da mugagabea. Auzitegiaren hitzetan, "espetxeratuei egokitzen zaien presondegia ez da administrazioko organoen diskrezio osoaren mende geratu behar"; izan ere, presoaren interesak kontuan hartu behar dira, bereziki "familia eta gizarte mailako lotura batzuei gutxienez eusteari dagozkienak". Giza Eskubideen Europako Auzitegiaren ustez, zigortuak kokatzeko metodo argi eta aurreikusgarrien faltak zaildu egiten du presoak botere publikoen esku-hartze arbitrarioetatik legezko neurrien bidez babestea. Bestela esanda, espetxe-sistemaren kudeaketak bere jarduera justifikatu behar du presoei dagokienean, modu pertsonal eta indibidualizatuan, hartzen diren erabakien legezko oinarria argi adieraziz eta kasu bakoitzean hartutako neurrien proportzionaltasuna zehaztuz, presoaren familia-bizitzaren intimitaterako eskubideari eragiten baitiote.

23. Horrez gain, Europako espetxe-erregimenei buruzko Ministroen Batzordearen REC (2006) 2 Gomendioak bere Eranskinean, I. atalean, ezartzen du presoei ezarritako murrizketak behar-beharrezkoak diren neurrira mugatu behar direla, eta haiek ezarritako helburu legitimoen arabera izan behar direla, eta, geroago dio, "espetxeko bizitzak ahalik eta lotura estuena izan behar du espetxetik kanpoko bizitzaren alderdi positiboekin".

Aurrerago, adierazten du, "atxilotuak, ahal dela, beren bizilekutik edo gizarteratzeko egoitza hurbil dauden espetxeetan banatuta egon behar dute" (17.1). Eta atxilotuei espetxea esleitzeari dagokionean dio, "banaketak kontuan hartu behar ditu jazarpenari eta ikerketa penalei buruzko eskakizunak, baita barne- eta kanpo-segurtasunari buruzkoak eta atxilotu guztiei erregimen egokiak eskaintzeko beharrari buruzkoak ere" (17.2). Gomendio horretan bertan ezartzen da espetxeetako agintariak "gizakiaren eskubideak babesteko dauden nazioarteko eta eskualdeetako tresnak errespetatzen dituzten arauetan oinarrituko den espetxe-administrazioa" lortzeko helburua dituzten antolaketa-metodoak eta kudeaketa-sistema sustatu behar dituztela.

24. Edozein motatako atxilotuak edo espetxeratzea jasaten duten pertsona guztiak babesteko Nazio Batuen Batzar Nagusiak 1988ko abenduaren 9ko 43/173 Ebazpenean

onartutako printzipio multzoa gehitu behar zaie Europako Kontseiluaren esparruan emandako arau hauei. Printzipio multzo horretan ezartzen da, "atxilotutako edo espetxeratutako pertsonak hala eskatuz gero, ahal den neurrian bere ohiko bizilekutik arazoizko distantziara dagoen atxiloketa-zentru edo espetxean egongo da" (20 artikulua).

4. ESKUBIDEEN IKUSPEGITIK

25 Pertsonak, baita espetxean daudenek ere, eskubideak dituzte, eta eskubide horiek errespetatu eta bermatu egin behar dira, gizarte politikoa zuzenbideak araututako gizartea dela baieztatu nahi bada. Eskubide horien artean, gaixoek bizitzeko duten eskubidea dago.

4.1. Gaixorik dauden pertsonen bizitzarako eskubidea

26. Gaixotasun larriak dituzten presoek eskubideak dira kaltetuenak. Egoera hori egiaztatzeko, Zigor Kodearen 91.3 artikulua gogoratu besterik ez dago.

27. Espetxeetako agintariek "bizitzarako arrisku nabaria" terminoari buruz egiten duten interpretazioa, "terminala" terminoaren parekotzat joaz, ez da egokia izan; izan ere, kategoria sanitario desberdinak dira, eta interpretazio lexikalak ere ez luke horrelakorik ahalbidetuko. Terminologia eztabaida honetatik harago, gaur egun egindako eta jarraitutako espetxe-politikak zuzenean eragiten dio bizitzarako eskubideari.

28. Bizia galtzeko arrisku nabaria duten pertsonak espetxean mantentzeak geratzen zaien bizi-denbora nabarmen murrizten die. Espetxea zigortzeko tresna gisa erabiltzen da, gaitz edo gaixotasun baten ondorioz bizitza galtzeko arrisku nabaria duten pertsonen bizi-denbora laburtzea lortzen baitu. Zuzenbideak, hain zuzen ere, kontrako helburua lortu beharko luke, hau da: Arau penala ahalik eta era onberenean aplikatzea eta pertsonak ahalik eta bizitza luzeenaz disfrutatzen duten eskubidea bermatzea. Espetxean egoteak dagoeneko mugatua duten bizi-itzaropena are gehiago murrizten die. Botere publikoen betebeharra da pertsona horiek aske uztea

legezko arauak hala ezartzen duelako eta Konstituzio Auzitegiak horrela interpretatu duelako.

Baldintzapeko askatasuna arriki gaixo dagoen presoak laster hilko den ziurtasuna duenean bakarrik ematen du Espetxe Administrazioak baldintzapeko askatasuna. Argi eta garbi. Aginako, Otxoa de Eribe edo Troitiñoren kasuak jarrera horren erakusgarri dira.

Jarrera hau aldatu egin behar da. Gaixotasun bat larritzat jotzeko terminala izatea eskatzen duen jarrera murriztailea ez da onargarria demokrata omen den estatu batean. Preso hauek aske utzi behar dira gaixotasun larria detektatzen zaienean, haien egoera arintzeko edota, nolana ere, senideekin egon ahal izateko.

4.2. Estatu espainoletik kanpo betetako zigorrak zenbatuak izateko eskubidea

29. Europar Batasunak arau bat eman zuen Europako zigor-arloko auzitegien epaiek antzeko ondorioa izan zezaten. Hau da, pertsona bati ezarri beharreko zigorra zenbatzen edo kontabilizatzen denean, Europako auzitegiek emandako epaiek izan zezaketen ondorioa kontuan izatea, estatu bateko auzitegien epaiek dutenekin parekatuko balira. Beraz, Europar Batasuneko estatu kideek elkarri egiten dioten aitortza bat da, hauen arteko aintzatespenean eta konfiantzan sakontzen duena, estatu bakoitzeko auzitegiek aurrera daramaten jarduerari dagokionean. Horretarako sortu zen 2008/675/JAI Esparru-Zuzentaraua.

30. Estatu Espainolaren kasuan, barne-araudiak ez zuen esparru-erabaki hori garatu, epez kanpo egin baitzen. Estatuak arau hori eman aurretik, Auzitegi Gorenak, zuzenean, Europako araudia aplikatu zuen. Horrela, Auzitegi Gorenaren lehen epaia eman zen, honako hau zioena: Auzitegi Gorenak ulertzen zuen, garapen-araudirik ezean, esparru-erabakia interpretatzerakoan, Zigor Kodearen 76. artikulua eta Prozedura Kriminalaren Legearen 998. artikulua araberak, kontuan har zitezkeela zigor-arloko auzitegiek Europar ezarritako zigorrak, Estatu Espainolean bete beharreko zigorrak murriztuz (186/2014 AGE).

31. Auzitegi Gorenaren interpretazio hori ekiditeko, aukera hori galaraztea helburu zuen 7/2014 Lege Organikoa onartu zen. Honen arabera, kondena-epaien betearazpena kontabilizatu nahi denean, ezin da metaketarik eman, esparru-erabakiaren 3.5 artikulua oso interpretazio partikularra eginez.

4.3. Zigorra ohiko bizilekutik gertu betetzeko eskubidea

32. Espetxean dauden pertsonen eskubideak ez dira legez jaso ohi izan duela gutxi arte. Espetxe-sistemen arau erregulatzailiek aipatu ohi dituzte, baina konstituzio-arauek ez dituzte esplizituki jasotzen. Konstituzioek erreferentzia orokorrak egiten dizkiote zigor-legezketasunaren printzipioari edo espetxe-sistemaren xedeari, baina normalean ez dituzte espetxeratuen eskubideak berariaz jasotzen dituzten manuak ematen.

33. Antzeko zerbait gertatzen da nazioartean. Nazioarteko itunek ez dituzte espetxeratuen oinarrizko eskubideak jasotzen, baina horrek ez du esan nahi eskubide horiek ez direnik aitortzen. Zehazki, aztertzen ari garen gaian, espetxeratuek familia-bizitzarako duten eskubidea aitortzen da, eta eskubide horren irismena eta esanahia jurisprudentziaren bidez zehazten dira.

Familia-bizitzarako eskubideak biltzen ditu bai kanpoko esku-hartzeen aurkako defentsa-elementuak, bai botere publikoen jarduteko betebeharrak positiboak. Familia-bizitzarako eskubidea aitortzean, eskubide horren eduki gisa familia-harremanei eustea onartzen da, eta, horretarako, beharrezko erabakiak hartu behar dira, pertsona horiek kondena beren ohiko bizilekutik urrun bete ez dezaten, legezko aurreikuspenen aplikazioan ezar daitezkeen mugak ekar dezketenak izan ezik. Halere, muga horiek proportzionaltasun-printzipioa beti errespetatu beharko dute.

34. Giza Eskubideen Europako Hitzarmenak (GEEH) familia-bizitzarako eskubidea jasotzen du, baina Espainiako Konstituzioak ez du zehatz-mehatz horrela aipatzen. Azken honek familiaren intimitateari buruzko aipamena egiten du, ez familia-bizitzari buruzkoa. Bi eskubideek eduki bera dutela ulertuz gero, Konstituzio Auzitegiak familia-bizitzarako eskubidea babestu beharko luke, Konstituzioaren 18. artikulua arautzen duen oinarrizko eskubidea delako, hain zuzen ere. Aitzitik, horrela ulertuko ez balitz, horrek ez luke esan beharko derrigorrez eskubide hori ez dagoela nolabait jaso. Izan ere, GEEHa Estatuak sinatutako nazioarteko tratatu bat da, barne-ordenan lotesten duena, eta haren interpretazio loteslea Europako Giza Eskubideen Auzitegiak (EGEA) egiten du. Beraz, familia-bizitzarako eskubideak eskatzen du presoak beren ohiko bizilekutik hurbilen dauden espetxeetan kokatzea. Kontrakoak esan nahiko luke Espetxeetako Administrazioak erabateko askatasuna duela presoek espetxeak esleitzeko unean, eta zigorra ohiko bizilekutik urrun dauden lekuetan betetzera bidali ditzakeela. Hau da, Administrazioak erabaki hori hartzeko ahalmen diskrezional kontrolaezina duela esan nahiko luke, eta "muga bakarra" urruntasun

horrek familia-harremanak ez eragozteka izango litzatekeela. Bestela esanda, Espetxe Administrazioak presoak ohiko bizilekutik 500 km-ra dauden zentroetara bidal ditzake, ohiko bizilekutik hurbil dauden espetxeetan plaza librean egon daitezkeen arren.

4.4. Gradu-progresioak eta espetxeetako agintariek egiten duten erabilera

Graduen progresioek espetxe-politikan duten garrantzia ukaezina da. Izan ere, zigorrak osorik eta modu eraginkorrean betetzeko erreforma-neurriei buruzko 7/2003 Lege Organikoa aztertuz gero, bistakoa da lege horrek euskal preso asko ezkutuko biziarteko espetxealdi zigorrak betetzera kondenatu dituela. Zer da bestela 40 urteko espetxe-zigorra, baldintza oso murriztaileak ezartzen direnean, besteak beste, espetxe-onurak, irteera-baimenak, hirugarren gradurako progresioa edota baldintzapeko askatasunak lortzeko? Lege honi buruz, honako hau esan da:

“Lege krudel, anker eta iraingarria da, preso horiengan utz ditzakeen ondorio fisiko eta psikologikoengatik”

(J. Antonio Martín Pallin. Auzitegi Goreneko magistratu emeritua)

Lege horiek ez dituzte betetzen eta ez diete erantzuten zuzenbideko estatu sozial eta demokratiko baten eskakizunekin bat datorren espetxe-politikaren printzipioei. Horregatik, indargabetzearen aldeko iritzia gero eta handiagoa da. Horrela adierazi dute zuzenbidearen munduko pertsona nabarmenek:

“Diputatuen Kongresuan gehiengo parlamentario nahikoa dago -gehiengo osoa- 7/2003 eta 7/2014 legeak indargabetzeko”

(Garbiñe Biurrun, EAeko Auzitegi Nagusiko magistratua)

Nolanahi ere, horrelako ekimen baten aurkezpena kudeatzea Gorte Nagusietan ordezkaturak dauden alderdi politikoei dagokie, eta haiek erabakiko dute ekimena aurkezteko modua eta unea, dauden indarren korrelazioaren arabera. Kasu honetan, Sareak ezohiko egoera hori egiaztatu besterik ez du egiten.

5. ESPETXE-POLITIKA, BIKTIMAK ETA MEMORIA

35. Gai hauek jorratzea zaila bada ere, oinarrizko eskubideen defentsarako erakundea garen aldetik, gogoeta labor bat egin beharra dugu. Zenbait komunikabidek, alderdi politikok eta elkartek behin eta berriz aipatzen dituzte kuestio hauek, kasu batzuetan populismorik merkeena darien planteamenduak plazaratuz, eta beste batzuetan afera era duinean heldu nahian, gaiaren zailtasunaz jakitun.

Nahiz eta ikerketa historikoa tarte labor batera mugatu nahi izan, 1960 urtetik gaur egun arte, frankismoa ahazteko ahalegin garbian (horrek dituen ondorioekin, biktimen ikuspegitik bereziki), milaka dira bide bazterretan senideak bilatzen dituztenak, eta botere publikoek ez diote behar bezalako erantzunik eman erronka itzel horri.

36. Gure asmoa ez da eztabaida honetan sartzea, ez eta diktadura baten aurkako oposizio bortitzarekin edo diktadura horretan eragile izan zirenen egoera juridikoarekin zerikusia duten eztabaidetan ere. Ez, gure gogoetak Zuzenbideari, araei eta espetxean dauden pertsonen eskubideei lotuta daude, aipatuak bai, baina gero sistematikoki ezagutzen ez diren eskubideei lotuta.

37. SARE sortu zenetik, legearen barruan oinarritu ditugu gure eskaerak. Termino horrekin, legeak berez aipatu nahi ditugu, baina baita jatorri eta eduki desberdineko xedapenak ere, espetxean dauden pertsonen araubide juridikoari buruzko aipamenak egiten dituztenak. Zuzenbidea ezin da espetxeen atarian geratu. Behin eta berriz errepikatu dugu esaldi hori. Are gehiago, gure iritzian, zuzenbidezko estatu batean ezin da bestela izan. Botere publikoek espetxean dauden pertsonengan erabakiak har ditzakete, betiere legeak horretarako eskumena ematen badie. Botere publikoek ezin diete eskubideei mugarik asmatu, legeak ez baditu muga horiek aurreikusten. Ikusi ahal izan dugu nola aztertzen diren muga horiek bizi dugun pandemia-egoeran, baina ez da gauza bera egiten espetxean dauden pertsonen egoera juridikoa aztertu behar denean. Kasu honetan, lupa desagertu egiten da.

38. Adierazi den bezala, espetxe-politika legearen baitan dago, maila desberdineko xedapenetan, Espainiako 1978ko Konstituzioa barne, mota desberdineko nazioarteko tratatuetan, tratatu horiek aplikatu dituzten nazioarteko auzitegietan, oinarrizko eskubideen defentsan erantzukizun unibertuala duten organoen ebazpenetan, Europako organoen ebazpenetan, Europako Kontseiluaren esparruan hartutakoak adibidez, eta abar.

39. Arau horiek guztiek espetxeen araubide juridikoari buruzko funtsezko gaiak ezartzen dituzte, eta agintariak arau horietan ezarritakoa kontuan izan behar dute, legekotasun-printzipioak eskatzen duen bezala. Espetxeetan aplikatu daitezkeen araubide juridikoak esan nahi du agintari publikoek ezin dutela, nahi izate hutsagatik, espetxe horietan dauden pertsonen beren eskubideak baliatzeko muga edo baldintzapenik jarri. Oinarrizko printzipio hori ez da errespetatzen ari, ez espetxeen arloan eskumena duten agintarien aldetik, ez alderdi politiko batzuen aldetik.

40. Salbuespenaren adibide argia da 7/2003 Lege Organikoan terrorismo-delitu etarako presoan (nahitaezko) kolaborazioari egiten zaion berriazko aipamena, eta eskakizun horri buruz egiten den interpretazioa; kolaborazio hori ez lukeelako derrigorrezkoa izan behar aparteko baimenak edo/eta zigorra laburtzeko aparteko erabakirik lortzeko. Horrelako eskakizun bat planteatzea salbuespenaren adibide garbia da. Are gehiago, kolaborazioa eskatzeak ekintza propioak edo delazioak aitortzea dakar, eta hori, argi eta garbi, norbere buruaren aurka ez deklaratzeko eskubidearen aurkakoa da. Nola eska dakioke inorri ETArri egotzitako gertakari jakin bat argitzea, horrek bere buruaren aurka deklaratzeko esan nahi badu? Eskakizun hori Konstituzioaren aurkakoa da, oinarrizko eskubideak ez dituelako errespetatzen.

Alor honetan, garrantzi handikoa da Auzitegi Goreneko magistratua Jose Antonio Martín Pallinek berriki egindako hausnarketa, SAREk antolatutako mahai-inguru batean:

“Delazioa erreklamatzeko dietenen aurrean edo espetxe-onurak lortzeko adierazpen pertsonalak egitea eskatzen dizkietenen aurrean, [esango nieke] hori duintasunaren aurka doa[la]. Gai pertsonala eta etikoa da”

Eta magistratu honek honela jarraitzen du:

“Indarkeria borondatez uztea, eta denboran erabaki hori berrestea, inposatutako delazioa baino askoz gehiago da”

(J. Antonio Martín Pallin. Auzitegi Goreneko magistratu emeritua)

41. Baina, gainera, prozesu judizial askoren bermeak ezbaian jarri beharko genituzke. Auzitegiak ausartu egin badira egunkari bat ixtera eta instalazioak hondatzen utzi harik eta funtzionaltasun guztia galdu arte, gero, horri buruzko erabaki judizialik ez hartzeko, normala da zalantzan jartzea jardun judizial batzuk zuzenbidearekin bat ote datozen. Justiziaren funtzionamenduak sor ditzakeen zalantza legítimoak agerian jartzea baino ez dugu nahi aipamen honekin.

42. Dena dela, presoek eskubideei buruzko ezjakintasuna maila gorenera iristen da Espainiako Gobernuko presidente bat kritikatzeko denean, zigorra bete ondoren, euskal preso batzuk aske utzi dituelako.

Beharrezkoa da presoek harrera edo ongietorri buruzko gogoeta labur bat egitea. Euskal presoek adierazi dute sentitzen eta aitortzen dutela gainerako pertsonen sufrimendua, eta euren nahia dela beren esku dagoena egitea bizikidetzara eta bakea lortzeko. Ezarritako zigorrak bete ondoren, aske geratzea pozgarria da haienentzat, senideentzat eta lagunentzat. Baina ez dute nahi poztasun horrek beste pertsonen kalte egiterik. Horregatik ulertzen dute "ongietorri publikoen harira samina sentitu dutela zintzoki azaldu duten pertsonak" egotea eta horregatik, sufrimendu hori arindu eta aukera berriak zabaltzeko, zauriak sendabidean jartzeko eta elkarbizitza sendotzeko borondatea adierazi dute. Helburu horietarako, libre geratu izanaren poza hurkoen artean eta espazio pribatu batean antolatutako harreretan adierazi behar dela ulertzen dute.

43. Adierazpen horiek gorabehera, ez da inoiz nahikoa. Presoek kolektiboak deklarazioen bat egiten duen bakoitzean, jarraian beste eskakizun bat dator. Hori guztia ez da ahaztu behar, legeak horrelakorik esaten ez badu ere.

Badirudi euskal presoek portaeren lege-oinarririk gabeko eskakizun horiek, berez, subkontziente baten adierazpena direla, gutxi-asko esplizitua, eta adierazten dutela indarkeriak mesede egin diola gure herriko sektore ideologiko bati, eta sektore hori, neurri batean, onuraduna izateaz gain, erantzulea ere badela. Horregatik, zilegi da zeregin politikoan legitimatuko duten jokabideak eskatzen jarraitzea, harik eta bere eskubideen egikaritza baldintzatu arte, kasu honetan, presoena.

44. Gu ez gara eztabaida horretan sartuko. Egia esan, gure ustez, politika eta memoria aztertzeko era oso kapritxosoa eta interesatua gertatzen ari da, ñabardura eta, batez ere, interes politiko oso desberdinak baitaude. Zaila da ulertzea biktimen oroimenean Euskal Herriko hiritarren torturazailerik "eredugarrienak" izan ziren pertsonen garrantzia nabarmentzea. Esan bezala, une honetan ez zaigu interesatzen eztabaida hori. Arauek eskubideak ezartzen dituzte eta baita ahal publikoen irismena, eta bi puntu horietara mugatu nahi dugu elkarbizitzari egiten diogun ekarpena.

6. ESPETXE-POLITIKA: AZKEN GOGOETA

45. Aurreko datuek agerian uzten dute espetxe-politikak orain arte izan dituen gabeziak. Auzitegiek ez dute behar bezala betetzen dagokien eta zuzenbidezko estatu batean garatu behar duten funtzio juridiko-politikoak. Gauza bera gertatzen da fiskaltzarekin. Gure ustez, sistema judizialak bere jarduna ondo mugatu behar du, haren bere esku-hartzeak ez dio alderdikeriari erantzuten behar. Funtzio judizialak inpartzialtasuna eta independentzia bereziki zaindu behar ditu .

Fiskaltzaren eta Espetxeratuen Zaintzako Epaitegi Zentralaren inboluzio kezkarri baten aurrean gaude. Espetxeetako Tratamendu Batzordeek, poliki-poliki, hirugarren gradurako progresioak eta espetxe-baimenak onartzen ari diren bitartean, Epaitegi Zentralak neurri horiek errekurritzen ari da, eta hirugarren graduan zeuden presoak espetxera eta bigarren gradura itzuli dira. Teknikari asko, eta baita Espetxe Tratamendu Batzordeak ere, epaitegi zentral honen ebazpenen aurrean harrিতuta eta baita suminduta ere agertzen dira. Izan ere, epaitegi honek presoan ibilbidea ezagutu ez arren eta salbuespenezko irizpideak erabilita, espetxeetan egiten den lana eta hartzen diren erabakiak hankaz gora jartzera ausartzen da.

46. Horrela, erabaki judizialek joera alderdikoi jakin batzuek ezarritako jarraibideei egin diete men orain arte. Gauza bera gertatu da espetxe-politikarekin, ez baitu jakin ETAre desagerpenetik sortutako egoera politiko berriaren eskakizunetara egokitzen. Alderantziz. Horren froga argia dira gaixo dauden presoan eskubideak, urruntzearen amaiera eta Europako beste estatu batzuetan betetako zigorrak. Era berean, espetxe-administrazioa, espetxe-politikaren garapenerako funtsezko lehen atea izanik, lege-aginduak urratu dituen lehena izan da, eta ez du aukerarik eman bestelako espetxe-politika bat egiteko, ordenamendu juridikora eta oinarritzko eskubideen errespetura hobeto egokitzen dena.

47. Gaur egun, espetxeen arloko administrazio-eskumena EAERI dagokio, ez, ordea, Nafarroako Foru Komunitateari, honek espetxe-osasunaren arloko eskumenak baino ez baititu. Horri esker, indarrean dauden arauetara hobeto egokitzen den espetxe-politika gauzatu ahal izango da.

Estatuko agintariek orain arte printzipio gisa aplikatu izan duten salbuespen-egoera gainditu egin behar da legearen aplikazio arrunta eginez. Horretarako, hurbiltasun-irizpidea funtsezkoa da, baina ez bakarrik Administrazio jardulari buruz hitz egin nahi denean, baizik eta baita espetxe-zaintzako epaitegien esku-hartzeaz ari garenean ere.

48. Espetxe-zaintzako epaitegi horiek bizi duten errealitatea zehatz-mehatz ezagututa jardun behar dute, eta erabakiak hartzen diren pertsona horien berri izan behar dute. Hori dela eta, premiazkoa da arlo horretan indarrean dagoen legeria aldatzea, espetxe-zaintzako epaitegiek berriz ere erantzukizuna izan dezaten Auzitegi Nazionaleko espetxe-zaintzako epaitegi zentrala eratzean, 5/2003 Legeari jarraiki, zentralizazio-prozesua hasi aurretik zuten antolaketan.

Hori dela eta, premiazkoa da arlo honetan indarrean dagoen legeria aldatzea, espetxe-zaintzako epaitegiek berriz ere organizazioan izan dezaten ardura Auzitegi Nazionaleko espetxe-zaintzako epaitegi zentrala eratzearekin lotutako zentralizazio-prozesuaren aurretik, 5/2003 Legearen arabera.

49. Bada garaia espetxe-politika salbuespenaren kontrakoa izan dadin, euskal presoek baimenak eskuratu ahal izan ditzaten, hirugarren gradura igarotzean, programatutako irteeretan, hori guztia legezkotasunaren barruan, baina baldintza egokietan dagoenak espetxetik kanpo bizi normalizatua garatu ahal izateko helburuarekin. Espetxeetako agintari autonomikoek espetxe-politika berri bat egiteko aukera eta betebeharra dute. Beren gaitasunean eta borondatean sinesten dugu, eta gure babesaren adierazten diegu helburu horretara bideratutako guztian.

7. ONDORIOAK

Orain arteko gogoeta hauek guztiak, zorroztasun handiz eginak, indarrean dauden lege-aginduetan eta jurisdikzio-ordena desberdinetako auzitegien jurisprudentzian oinarrituta egin dira, eta adierazten digute salbuespen-araubidea dela oraindik ere Estatuko botereen jarduera-araua. Euskal presoek aspalditik egon beharko lukete Euskal Herrian, eta horrek esan nahi du beren eskubideak urratzen ari dizkietela eta indarrean dagoen legeria ez direla betetzen ari.

Espetxeetako politikak ere ez du graduen progresioa aurrekisusten duen araudia aplikatzen, indarrean dauden testuak aintzat hartze hutsak agerian uzten duenez. Presoak bigarren graduan blokeatuta eta beren zigorrak osorik betetzera behartuta daude. Espetxe-politika normalizatua aplikatu izan balitz, preso horien herena baino gehiago beren etxeetan egongo ziratekeen gaur egun.

Oraintxe amaitu den urtean Fiskaltzak eta Espetxe Zaintzako Epaitegi Zentralak erakutsi duten jarduna ez da batere lagungarria izan espetxe-politika normalizatua garatzeko. Gure ustez, jarduteko modu hori botere judizialaren egituretatik aurrera eramaten ari diren blokeo politikoko estrategia baten zati da, gaizki ulertutako ikuspegi sasi-patriotiko batean oinarritzen dena, eta, jakina, ez du helburu humanitarioekin bat egiten duen espetxe-politikarik bilatzen, eta demokraziatik urrun dauden ikuskera politikoen zordun da.

Gure iritzian salbuespen-legeak berrinterpretatu eta legearen, justiziaren eta espetxeen ohiko normalizazio- eta funtzionamendu-irizpideen ikuspegitik berrikusi egin behar lirateke. Era berean, lege-aldaketak egin behar dira, adibidez, 7/2003 Legea eta 7/2014 Legea indargabetu behar dira, espetxe-zaintzako epaitegi arruntek espetxe-politika fiskalizatzeko behar diren erabakiak har ditzaten; eta ez, ostera, Auzitegi Nazionaleko espetxe-zaintzako epaitegi zentralak.

Espetxe-politikak bat etorri behar du lege-aginduekin, espetxean dauden pertsonen oinarritzko eskubideekiko errespetuarekin eta, azkenik, Giza Eskubideetan adituak diren Nazioarteko Erakundeek arlo horretan defendatzen dituzten printzipioekin bat datorren espetxe-politikaren aplikazioarekin. Eskakizun demokratiko saihestezina da hori, eta euskal herritarren gehiengoak bat egiten du honekin. Horregatik, urtero espetxean dauden pertsonen eskubideak errespetatzeko aldarrikapen hori kaleetara eramaten du, bereziki, zigorra beren ohiko bizilekutik gertu betetzeko duten eskubidea errespetatzeko aldarrikapena.

Egin dezagun bidea. Ibilian ibilian, etxerako bidean.



SARE